ZURAK KUDEATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

AURKIBIDEA

1. HELBURUA

2. KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEA

3. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA
   3.1 KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA
   3.2 LIZITAZIOAREN GEHIENEKO AURREKONTUA
   3.3 LIZITAZIOAREN PREZIOAK
4. DERRIGORREZ BETE BEHARREKO BALDINTZA TEKNIKOAK – NAHITAEZKO BETEKIZUNAK

5. LIZITATZAILEAK BETE BEHAR DITUEN BETEKIZUNAK

6. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
   6.1 3. GUTUN AZALEAN BAKARRIK SARTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA, FORMULAK APLIKATUZ EBALUATZEKOA
   6.2 2. GUTUN AZALEAN BAKARRIK SARTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA, BALIO JUDIZIOEN BIDEZ EBALUATZEKOA – EGIN BEHARREKO LANARI BURUZKO TXOSTENA

7. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK
   7.1 FORMULA BAT APLIKATUZ ESLEITZEN DIREN PUNTUAK EMATEKO IRIZPIDEAK (IRIZPIDE AUTOMATIKOAK).
   7.2 BALIO JUDIZIO BATEN ONDORIOZ ESLEITZEN DIREN PUNTUAK EMATEKO IRIZPIDEAK

8. INFORMAZIO OSAGARRIA

9. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO PREZIOA KALKULATZEKO METODOA

10. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

1. ERANSKINA

ZURAK KUDEATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. LEHIAKETAREN XEDEA

Baldintza agiri honen xedea honako kontratu honen oinarritzat hartuko diren hainbat baldintza tekniko zerrendatzea da: zur "garbia" eta "zikina" edo "tratatutakoa" kudeatzeko zerbitzua ematea, honako sistema hauen bidez birziklatu eta berrerabiltzeko:

- Garbiguneetan jasotako eta Mankomunitateko bertako langileek garraiatutako zur "garbi" eta "zikinaren" hondakinak.
- Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko tailerretan bildutako zur "garbi" eta "zikinaren" hondakinak, Mankomunitateko bertako langileek garraiatuak.
- Mankomunitateko langileek garraiatutako bide publikoko altzarien bilketatik eratorritako zur "garbi" eta "zikinaren" hondakinak.

Hondakina instalazioetan jaso ondoren, kontratistak hondakin hauen bereizketa mekanikoa eta kudeaketa egin beharko du:

- Zur garbia: Margotu eta tratatu gabeko zur hondakinak, paletak, taulak…, egoera naturalean dauden egurrezko altzariak, bide publikoan jasotako altzarien zati direnak, baita garbiguneetan eta lantegietan jasotako egurra ere; behin bereizita, Birziklatze Zentrora bidaliko da.

- Zur "zikina" edo "tratatutakoa": Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak bide publikoan egiten dituen altzari bilketetan jasotako altzarietatik datorrena, baita garbiguneetatik datorren egurra ere, itsatsitako eta/edo atxikitako elementuak dituena (iltzeak, kristalak, ispiluak, bernizak, pinturak, eskutokiak eta abar). Zur hori, birrindu ondoren, Tratamendu Zentrora bidaliko da, bere balorizazio energetikoa egiteko.

  Esleipendunak garraio-kostuak bere gain hartuko ditu, Debabarrena Eskualdeko mankomunitateak entregatzen dituen tokitik kudeatzaile baimenduaren kokalekuraino, edo sailkatzeko eta birziklatzeko biltegiratze-, sailkapen- eta birziklatze-zentroraino.

2. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuak bi urte (2) iraungo du eta urte batez bi aldiz luzatu ahal izango da, gehienez ere 2 urtez.

3. KONTRATUAREN AURREIKUSITAKO BALIOA ETA LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA.

3.1 KONTRATUAREN AURREIKUSITAKO BALIOA:

Lehiaketaren xede den kontratuaren zenbatetsitako balioa, bi aldiz beste urte batez luzatu ahal izango den bi urteko aldirako, hau da, lau urteko aldirako, 260.400,00 eurokoa da, BEZ kanpo, urteko lau kuotentzat.

3.2 GEHIENEKO LIZITAZIO-AURREKONTUA:

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BI urteko aldirako, 143.220 € da, BEZa barne (71.610 €/urte), zur "garbia" eta "zikina" edo "tratatutakoa" kudeatzeko zerbitzurako, gero birziklatu eta berrerabiltzeko.

3.3 LIZITAZIOAREN PREZIOAK

Lizitatzaileek honako banan-banako prezio hauek adieraziko dituzte eskaintzan, BEZa barne, beren proposamenen baldintza teknikoak oinarri harturik:

- 1. prezioa: ZUR "GARBIAREN" KUDEAKETA
  Prezio unitarioa ezingo da 40,92 euro/tona (BEZa barne) baino handiagoa izan.

- 2. prezioa: ZUR "ZIKINAREN" EDO "TRATATUTAKOAREN" KUDEAKETA
  Prezio unitarioa ezingo da 40,92 euro/tona (BEZa barne) baino handiagoa izan.

Prezioek lantegian hondakinak bereiztearen, azken tratamendu-zentrora edo birziklatze-zentrora garraiatzearen kostuaren kontzeptu guztiak barne hartzen dute.

Halaber, lanak kontratatzearen eta egikaritzearen ondorioz sortutako edo sortu beharko diren gastu guztiak sartuko dira; hain zuzen, honako hauek:

- Lizitazio-gastuak eta, hala badagokio, kontratuaren formalizazio-gastuak.
- Kontratatutako prestazioa egiteko esleipendunak egin beharreko gastu oro; besteak beste, gastu orokorrak, finantzarioak, aseguru-gastuak, tasak, fidantzak, saiakerak, lekualdaketak, beretzat lan egiten duten langileen ordainsariak eta dietak, eta agiri honetan aurreikusitako gainerako gastuak.
- Zerga guztiak, eta kontratuak indarrean irauten duen bitartean ezar edo alda daitezkeen guztiak.

LIZITAZIOAREN URTEKO GEHIENEKO AURREKONTUA:

		Prezio unitarioa, tonako (euro BEZa barne)	Neurketa (zenbatetsitako tona kopurua / urte)	Zenbatekoa/urte (€ BEZa barne)
1. prezioa:	ZUR "GARBIAREN" KUDEAKETA	40,92 €/tona	450 tona	18.414,00 €
2. prezioa:	ZUR "ZIKINAREN" EDO "TRATATUTAKOAREN" KUDEAKETA	40,92 €/tona	1.300 tona	53.196,00 €
			GUZTIRA:	**71.610,00 €**

Kontratu honetan, prezioak ez dira berrikusiko.

Baldintza agiri honen 1. eranskinean, Mankomunitateak bildutako kopuruen historikoa agertzen da: 2019an, 2020an eta 2021ean bildutako kopuruak dira, mota bienak, baita egindako bilketen kopurua ere.

4. DERRIGORREZ BETE BEHARREKO BALDINTZA TEKNIKOAK – NAHITAEZKO BETEKIZUNAK

Zura kudeatzeko zerbitzua emateko, jarraian zehaztutako baldintzak beteko dira:

4.1. ENTREGA-INSTALAZIOEI EDO TRANSFERENTZIA ETA/EDO TRATAMENDU INSTALAZIOEI DAGOKIENAK

- Entrega-instalazioek (edo transferentzia eta/edo tratamendu instalazioek) deskargak egiteko leku egokiak izan beharko dituzte. Leku desberdin bat izan beharko dute (lurrean margotutako marrak edo antzeko zerbait) hondakin mota bakoitza deskargatzeko.
- Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak biltzen dituen hondakinak, nahitaez 40 km edo gutxiagoko distantziara egon beharko diren transferentzia eta/edo tratamendu instalazioetan utzi beharko ditu, Azitaineko industrialdean dagoen Eibarko garbigunetik neurtuta.
- Entrega-instalazioek gaueko deskargak egiteko beharrezkoak diren segurtasun-neurriak bermatu beharko dituzte. Horretarako argiztapen-sistema bat izango dute, eta argiak pizteko eta itzaltzeko giltza bat ere bai, instalazioetatik kanpo.
- Entrega egiteko instalazioetan baskula elektroniko legalizatua eta behar bezala kalibratua egongo da, erabiltzaileak erabiltzeko aukerarekin; baskulak –pisatze bakoitzean– tiket automatiko bat edo entrega agiri bat emango du, hileko fakturazioa egiteko oinarri izango dena. Baskulak mantentze-egoera ona izan behar du eta ondo funtzionatu behar du, pisatzearen doitasuna bermatzeko. Adjudikaziodunak kontrol metrologikoko egiaztagiriak –erakunde eskudunak emandakoak– aurkeztu beharko ditu, legez ezarritako maiztasunez. Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak garraiatu beharreko hondakinak pisatuko ditu bere

jabetzeko baskuletako edozeinetan, emaitza adjudikaziodunak emandako datuekin erkatzeko. Mankomunitateak edozein unetan baskula aldatzeko eskubidea du.

- Asteko egun bakoitzerako instalazioen irekiera-ordutegia zehaztu beharko da, jaiegunak barne. Kontuan izanik gauean deskargak egin daitezkeela, esleipendunarentzat nahitaezkoa da Debabarrena Eskualdeko mankomunitateak bere bitartekoekin jasotzen dituen zuren hondakinak esleipendunaren instalazioetan utzi ahal izatea egunaren edozein ordutan eta astearen edozein egunetan.
- Kudeatzailea den heinean dagokion aldetik, entregen jarraipen eta kontrolerako dagozkion agiriak izapidetzea, baita hondakinak Estatuko lurraldearen barruan garraiatzea arautzen duen martxoaren 13ko 180/215 Errege Dekretua ezartzearen edo horri dagokion araudi berria indarrean jartzearen ondoriozko agiriak ere, Eusko Jaurlaritzak eskatutako izapidetze elektronikoko sistema erabiliz (gaur egun, IKS-eeM).

4.2. HONDAKINEN TRATAMENDUARI ETA BALORIZATZEARI DAGOZKIONAK

- Tratamendu guztiak eta hondakinen kudeaketaren gainerako alderdiak erakunde eskudunek emandako argibideen arabera egin beharko dira, eta kasu bakoitzean indarrean dagoen araudiarekin bat etorrita.
- Esleipendunak hondakinak tratatzeko eta garraiatzeko beharrezkoak diren baimenak aurkeztuko ditu.
- Hondakinen tratamendua kontratistaren instalazioetan edo hitzartutako instalazio batzuetan (horretarako baimen egokia dutenak) egingo dira.
- Kontratistak onartu beharko ditu Debabarrena Mankomunitateak bidalitako zur hondakin guztiak, material desegokien ehunekoa, hondakinen hezetasun portzentajea edo edozein arrazoi dela medio aprobetxatu ezin diren materialen ehunekoa edozein dela ere. Azken horiek lizitatzaileek kontuan izan beharko dituzte eskainiko diren prezioak kalkulatzeko.
- Adjudikaziodunak ahalik eta gehien aprobetxatu beharko ditu entregatuko zaizkion hondakinak; hau da, egurrezko elementuetatik balorizatzeko moduko material guztiak aterako ditu, errefusa ahalik eta txikiena izan dadin. Berrerabiltzeak lehentasuna izango du birziklatzearen aurrean, eta birziklatzea balorizazio energetikoaren aurrean; une guztietan, hondakinen kudeaketa arloan indarrean dagoen legedia bete beharko da.
- Kontratistaren kontura eta erantzukizunpean izango da lanak zuzen egikaritzeko beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak eskuratzea, eta bere kargura erantzun beharko die erakunde eskudunen ondoriozko baldintza eta preskripzioei. Baimen eta lizentzia horiengatik tasak, fidantzak eta beste gastu batzuk eskatzen direnean, kontratistak ordaindu edo gordailutu beharko ditu horiek.

- Mankomunitatea jakinaren gainean jarriko du eta bere eskura jarriko ditu entregatutako materialean ager daitezkeen objektu baliotsuak.

4.3.KONTROL SISTEMARI LOTUAK

- Kontratistak behar adina bitarteko izango ditu garaiz emateko Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak eskatutako datu guztiak, eginiko lanak justifikatze aldera eta kontratatutako zerbitzuaren gainean egitea komeni diren kontrolak zuzen egikaritzeko. Sistema horiek bateragarriak izango dira Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak eskura jarritakoekin.
- Esleipendunak justifikatu egin beharko du nora bidaltzen dituen hilero Mankomunitateak entregatzen dizkion hondakinak eta, fakturazioarekin batera, irteeren hileko txostena aurkeztu beharko du. Agiri horretan jasoko ditu material motak, datak, enpresen izenak eta bidalketa bakoitzaren zenbatekoak (pisua), eta bidalketa horiek hartu izana adierazten duten enpresaren onarpen-agiriak ere bai. Agiri horietan zehaztuko dira material motak, zenbatekoak eta datak.
- Kontratistak fakturazioaren oinarri izango diren zenbatekoak justifikatu beharko ditu, eta hilero aurkeztu beharko du tratamendu-lantegian eginiko sarreren txostena. Agiri horretan jasoko dira entrega bakoitzeko datak, ibilgailuen matrikulak, material motak eta zenbatekoak (pisua).
- Aurreko puntuetan azaldutako txostenak bidaltzeko, Mankomunitateak formatu jakin batzuk ezarriko ditu, paperean edo euskarri informatikoan, eta kontratistak bete eta hileko fakturazioarekin batera bidaliko dizkio. Datuak falta direla edo okerrak direla antzemanez gero, Mankomunitateak horiek zuzentzeko eskatuko du. Mankomunitateak txostenetako datuak onartu arte hileko lana ez da amaitutzat joko, eta, beraz, ez da faktura ordainduko.
- Urtero, kontratistak txosten bat aurkeztu beharko du tratamendu-lantegiaren funtzionamenduari buruz, eta urteko emaitzak zehaztuko dira: sartutako hondakinak eta zenbatekoak, prozesuen ekoizpena, ateratako hondakinak eta zenbatekoak, hondakin mota bakoitzaren norakoa, instalazioetan eginiko aldaketak, sortutako arazoak, etorkizuneko aurreikuspenak...

4.4.KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK

- Lanak onartutako agiriaren, aplikatu beharreko araudiaren eta kontratatutako lanen izaerari berez dagozkion arau teknikoen arabera egikaritu beharko dira zorrozki.
- Garatzen dituen lanen eta egiten dituen zerbitzu eta prestazioen kalitate teknikoaren erantzukizuna hartzea, baita kontratua betetzean egindakoengatik (gabeziak, akatsak, metodo ezegokiak erabiltzea edo lanak behar bezala ez amaitzea) administrazioari edo hirugarrenei sor dakiekeen ondorioen erantzukizuna ere.

Kontratistak berari egotz dakizkiokeen jarduketengatik hirugarrenei sorrarazitako kalteen ordainak emango ditu.

- Kontratistak unean-unean kontratu honen xede diren hondakinen kudeaketaren arloan indarrean dagoen Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudia bete beharko du.
- Kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu.
- Kontratistak erantzukizun zibileko aseguruaren kopia aurkeztu beharko du.
- Kontratista denez kontratuaren xede diren zerbitzuen prestazioaren arloan segurtasunaren eta osasunaren arduraduna, aplikatu beharreko arau juridikoak eta teknikoak bete beharko ditu.
- Behin-behineko esleipen-fasean, enpresa kontratistari bidaliko zaizkio Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari esleipen-prozeduran ezarritako epean entregatu beharko dizkion prebentzioaren arloko agiriak; kontratua sinatu baino lehen entregatu beharko dizkio, zerbitzuen prestazioari ekin ahal izateko.
- Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak eskubidea izango du kontratua indarrean dagoen bitartean egokitzat jotako prebentzioaren arloko agiriak eskatzeko.

5. LIZITATZAILEAK BETE BEHAR DITUEN BETEKIZUNAK

Kontratistak honako baldintza hauek bete behar ditu nahitaez:

1. TRANSFERENTZIA ETA/EDO TRATAMENDU INSTALAZIOA erabiltzeko aukera izatea, hondakinak entregatzeko; instalazioa Eibarko Azitain industrialdean dagoen garbigunetik 40 kilometrora edo distantzia txikiagoan egongo da.

   Eibarko Azitain industrialdean dagoen garbigunetik 40 kilometro baino distantzia handiagora dauden transferentzia eta/edo tratamendu instalazioak eskaintzen dituzten plikak prozedura honetatik kanpo geratzen dira.
2. Adjudikaziodunaren transferentzia eta/edo tratamendu instalazioek gaituta egotea, Mankomunitatearen baliabide propioekin bildutako zur hondakinak eguneko edozein ordutan eta asteko edozein egunetan uzteko; gainera, lizitatzaileak hondakinak jasotzeko moduko ordutegia izango du bere transferentzia eta/edo tratamendu instalazioetan.
3. Entrega instalazioan baskula elektroniko legalizatua eskura jartzea, indarrean dauden kalibrazio egiaztagiriekin.
4. Baimendutako kudeatzailearen akreditazioa izatea agintari eskudunak emandakoa, honako LER kode hautarako: 03 01 05, 15 01 03, 17 02 01, 19 12 07, 20 01 38 eta 20 03 07.

   Lizitatzaileak aurreko LER kodeen titularra dela eta baimenak indarrean daudela adierazten duten ziurtagiri horiek aurkeztu beharko ditu.

6. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzaileek eskaintza bakar bat aurkeztuko dute, baldintza teknikoen agiri honetan eta administrazio baldintza berezien agirian jasotako zehaztapenak betez. Beraz, lizitatzaileek eskaini behar dituzten prezioetan, baldintza agiri honen 3. apartatuan aipatutakoetan, 4. apartatuan zehaztutako aginduak hartuko dira aintzat:

Administrazio klausulen agirian eskatzen den dokumentazioarekin batera, lehiaketako parte hartzaileak honako dokumentazio hau derrigorrez aurkeztu beharko du:

6.1)3. GUTUN AZALEAN BAKARRIK SARTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA, FORMULAK APLIKATUZ EBALUATZEKOA

Atal honi lotutako edozein informazio 3. gutun azala ez den beste batean sartzen bada, eskaintza automatikoki baztertuko da.

Gutun azalean edo fitxategi elektronikoan: "*Eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez ebaluatzeko dokumentazioa",* lizitatzaileek aurkeztuko dituzte:

ESKAINTZA EKONOMIKOAK administrazio-klausula berezien agirian agertzen den ereduari zorrozki jarraitu beharko dio eta koherentea izan beharko du Txosten Ekonomiko-finantzarioarekin. Honako hau eskainiko da:

- LIZITAZIOKO PREZIO UNITARIOAK, baldintza agiri honen 3. apartatuan deskribatutakoak.
- TXOSTEN EKONOMIKOA: Eskaintza ekonomikoarekin batera, lizitatzaileek Txosten Ekonomikoa aurkeztu beharko dute:

  Memoriak banan-banan xehatu beharko ditu zuzeneko eskulanaren eta zeharkako eskulanaren kostuak, adibidez: hondakinak manipulatu eta bereiztearen kostuak, hondakinak garraiatzearen kostuak, azken tratamendurako zentroko tarifaren kostuak, txatarraren salmentatik ateratako diru-sarrerak, zuraren salmentatik ateratako diru-sarrerak, gastu orokorren ehunekoa eta industria mozkina…

FORMULEN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN BESTE ELEMENTU BATZUK

- EIBARKO GARBIGUNEAREN ETA LIZITATZAILEAREN ENTREGA INSTALAZIOAREN ARTEKO DISTANTZIA.

  Kilometrotan neurtutako distantzia, lizitatzaile bakoitzaren Transferentzia eta/edo tratamendu Instalazioetatik Eibarko Garbiguneraino (Gorosta Balle 21-A, Azitaingo industrialdea), adierazi beharko da. Zuraren entrega guztiak instalazio bakar batean egingo dira. Kokapenaren helbidea emango da.

  Eibarko Azitain industrialdean dagoen garbigunetik 40 kilometro baino distantzia handiagora dauden transferentzia eta/edo tratamendu instalazioak eskaintzen dituzten plikak prozedura honetatik kanpo geratzen dira.

6.2)2. GUTUN AZALEAN BAKARRIK SARTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA, BALIO JUDIZIOEN BIDEZ EBALUATZEKOA – EGIN BEHARREKO LANARI BURUZKO TXOSTENA

Gutun azalean edo fitxategi elektronikoan: *"Balio judizio baten bidez ebaluatzeko dokumentazioa"*, lizitatzaileek txosten teknikoa aurkeztuko dute, zerbitzua osorik eta xehetasunez deskribatzen duena, lehiaketaren xedea den zerbitzu bakoitza emateko modua jasotzen duena; txostenak ahalik eta xehetasun gehien emango ditu eta ahalik eta hoberen azalduko ditu egin beharreko lan guztiak, gutxienez, nahitaezko baldintzatzat jotzen diren apartatuetako bakoitza aipatuz.

Zerbitzua deskribatzen duen memoria teknikoak honako hauek hartuko ditu barnean:

- Instalazioen ezaugarri teknikoak (instalazioaren ezaugarriak, garraio sistema eta abar), instalazio horiek ahalik eta hoberen deskribatzen dituen dokumentazio grafikoa barne.
- Ibilgailuen, makineriaren, baskularen eta lana egiteko adskribatutako gainerako baliabide tekniko eta laguntzaileen deskribapena.
- Zerbitzuari esleitutako langileen, lanaldien eta lan ordutegiaren deskribapena, premiazko kasuetan jarduteko modua eta gainerako beharrezko elementuak.
- Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak hondakinak entregatzeko instalazioari dagozkion ingurumen ziurtagirien egiaztapena.
- Hondakin motak bereizteko eta entregak prestatzeko beharrezko prozesuen deskribapena.
- Hondakinak bereizteko prozedura. Hondakin zatikien "helmugen" deskribapena: zur "zikina", zur "garbia", txatarra eta errefusa, helmuga bakoitzera bidali nahi den gutxi gorabeherako proportzioa eta aurreikusitako erabilera adierazita. Hondakin mota bakoitzaren helmuga adierazi beharko da.

Gainera, lizitatzaileek nahitaez aurkeztu beharko dute Baimendutako Kudeatzailea izatea egiaztatzen duen dokumentazioa, agintaritza eskudunak emandakoa, honako LER kode hauei (edo Hondakinei) dagokiena, eskaintzan aipatutako entrega instalazioetarako (kodeak hondakinak balorizatzeko eta ezabatzeko lanak eta Europako Hondakin Zerrenda argitaratzen dituen otsailaren 8ko MAM/304/2002 Agindutik atera dira), non hurrengo LER kodeen titularra dela eta baimenak indarrean daudela adierazten den:

- LER kodea: 03 01 05: Zerrautsa, txirbilak, ebakinak, zura, partikulazko taulak eta substantzia arriskutsurik gabeko xaflak
- LER kodea: 15 01 03: Zurezko ontziak
- LER kodea: 17 02 01: Zura
- LER kodea: 19 12 07: Substantzia arriskutsurik gabeko zurra
- LER kodea: 20 01 38: Substantzia arriskutsurik gabeko zurra
- LER kodea: 20 03 07: Tamaina handiko hondakinak.

Dokumentazio horrek indarrean egon beharko du, lizitatzaileak adierazitako entrega instalaziorako.

Formulen bidez ebaluatzen den ezaugarrietako bat ere ezin da agertu Txosten Teknikoan, hala nola:

- **Eskaintza ekonomikoa eta prezioak.**
- **Txosten ekonomikoa.**
- **Eibarko Garbigunearen eta lizitatzailearen entrega instalazioaren arteko distantzia.**

Goian aipatutako datuei dagokienez, ezin da datu kuantitatiborik aipatu, ezta aipatutako ezaugarriak ondorioztatzeko aukera eman dezakeen daturik edo bestelako informaziorik eman ere.

7. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

7.1.) Formula bat aplikatuta puntuatzen diren irizpideak (irizpide automatikoak): 75 puntu gehienez, 3. GUTUN-AZALA

7.1.1) Zerbitzuari dagokion eskaintza ekonomikoa: kontzeptu honetan, gehienez ere 50 puntu emango dira:

Puntuak banatzeko formulan, "i" eskaintza bakoitzean baloratu beharreko eskaintza ekonomikotzat honela lortutako balioa hartuko da: zur "garbiaren" kudeaketaren prezio unitarioa bider urtean aurreikusitako zur "garbiaren" tonak, gehi: zur "zikinaren" edo "tratatutakoaren" kudeaketaren prezio unitarioa bider urtean aurreikusitako zur "zikinaren" edo "tratatutakoaren" tonak, BEZa barne; prezio unitarioak 3. apartatuan adierazitakoak dira.

"i" eskaintza ekonomikoa = 450 x 1. prezioa, ZUR "GARBIAREN" KUDEAKETARENA
+ 1.300 x 2. prezioa, ZUR "ZIKINAREN" EDO "TRATATUTAKOAREN" KUDEAKETA

Eskaintza ekonomikoen puntuazioak, onartutako proposamenei dagozkienak, interpolazio linealaren bidez eta onartutako horien arabera kalkulatuko dira, bi puntuek mugaturiko zuzenaren arabera: P1 (Gehieneko beherapena, gehieneko puntuazioa dakarrena: 50 puntu) eta P2 (Zero beherapena, gutxieneko puntuazioa), eta puntu horiek zuzen horretan mugatzen duten tartearen barruan. Aipatutako puntuak hauek dira:

P1 – Eskaintza ekonomikoenari dagokio (Gehieneko beherapena), hau da, lehiaketaren xedea den zerbitzua urte batez emateagatik ordaindu beharreko prezio baxuenari, BEZa barne; gehieneko puntuazioa esleituko zaio (50 puntu).

P2 - Lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontuari (71.610 €/urte, BEZa barne; zero beherapena) dagokio; gutxieneko puntuazioa emango zaio, honako formula honen arabera kalkulatutakoa:

$$Pmin = 50 \times (1 - (3 \times Bmax))$$

(Bmax = Gehieneko beherapena)

Pmin kalkulaturik lortutako emaitza negatiboa bada, zero dela joko da, Pmin=0.

Gainerako beherapenei, Bi, "i" eskaintza bakoitzari dagozkionei, interpolazio lineala erabilita, abzisen ardatzean, P1 eta P2 puntuen artean, ordenatuen ardatzean dagozkien puntuak esleituko zaizkie.

Beherapena (Bi) zatiketa baten emaitza da, non zatikizuna honako hauen arteko diferentzia den: batetik, lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontua (*71,610 euro, BEZa barne*), kontratuaren xedea den zerbitzua emateagatik; eta bestetik, "i" eskaintza ekonomikoa, BEZa barne; bestalde, zatiketaren zatitzailea urteko gehieneko lizitazio aurrekontua da, BEZa barne.

Bi = (Gehieneko urteko lizitazio aurrekontua – "i" eskaintza ekonomikoa) / Gehieneko urteko lizitazio aurrekontua

Aurrerago definitutako zuzena lortzeko, lehiaketan onartu diren oinarrizko eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

7.1.2) <u>Eibarko Garbigunetik entrega instalaziorako distantzia, lizitatzaileak (kilometrotan) adierazitakoa</u>; <u>kontzeptu hau dela eta, **gehienez ere 25 puntu** emango dira:</u>

Azitaingo industrialdean dagoen Eibarko Garbigunearen eta lizitatzaileak adierazitako entrega instalazioaren arteko distantzia 10 kilometro edo gutxiagokoa bada, 25 puntu emango dira.

Di < 10 km; "i" eskaintzaren puntuak = 25


Azitaingo industrialdean dagoen Eibarko Garbigunearen eta lizitatzaileak adierazitako entrega instalazioaren arteko distantzia 10 kilometrotik gorakoa (eta 40 kilometro edo gutxiagokoa) bada, honako formula hau aplikatuz lortutako puntuak emango dira:

Di > 10 km; "i" eskaintzaren puntuak = 25 – (Di-10)*25/30

Non:

"i" eskaintzaren puntuak "i" eskaintzari esleitutako puntuazioa da ("i" horren balioa 1etik n-ra doa, eta "n" baloratuko diren eskaintza guztien kopurua da).

Di kilometrotan neurtutako distantzia da, Azitaingo industrialdean dagoen Eibarko Garbigunetik eta –baloratuko diren "n" eskaintzen artean– "i" lizitatzaileak bere proposamen ekonomikoan adierazten duen entrega instalaziora.



7.2.) <u>Balio-judizio bat aplikatuta puntuatzen diren irizpideak: 25 puntu gehienez, 2. GUTUN-AZALA</u>

Jarraian azaltzen diren irizpideetan, kontuan izango dira lizitatzaileek idatzitako "EGIN BEHARREKO LANAREN TXOSTENA"ren kalitatea eta ondorioak.

<u>Egin beharreko lanaren txostenean EZIN DA AGERTU formulen bidez ebaluatzen den ezaugarrietako bat ere, hala nola:</u> Eskaintza ekonomikoa, Prezioak, Txosten ekonomikoa, entrega instalaziorako distantzia edo instalazioen helbidea. Agertuko balitz, prozeduratik kanpo uzteko arrazoia izango litzateke.

Lanaren txostena honako kontzeptu hauek kontuan hartuta baloratuko da:

⇨ <u>Zerbitzuari lotutako baliabide materialak eta giza baliabideak: Gehienez ere 10 puntu</u>.

- Instalazioen ezaugarri teknikoak, aipatutakoak ahalik eta hoberen deskribatzen dituen dokumentazio grafikoa barne (argazkiak, planoak, krokisak eta abar).

- Zerbitzuan erabiliko diren baskularen, makineriaren eta ibilgailuen ahalmena eta ezaugarriak.

- Langileak eta beren trebakuntza. Lanaldiak eta lan ordutegiak, baita premiazko kasuetan jarduteko aukera ere.

- LER kode osagarriak, baldintza agiri honen 6.2 apartatuan eskatzen diren gutxienekoez gain.

⇨ <u>Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak kontratuaren xede diren hondakinak uzteko instalazioei dagozkien ingurumen ziurtagiriak edukitzea: Gehienez ere 3 puntu</u>.

⇨ <u>Hondakinak bereizteko eta amaierako Tratamendu Zentroan kudeatzeko proposatzen den prozedura: Gehienez ere 12 puntu</u>.

- Hondakin multzoen helmuga eta trazabilitatea: paletak, zur garbia, tratatutako zura, txatarra, errefusa eta abar, lizitatzaileak multzo bakoitza bidaltzen dien eta/edo kontratu honen markoan bidaliko dien kudeatzaileak edo enpresak zehaztatuta, helmuga bakoitzari buruz honako datu zehatz hauek emanda:
  a) Sozietate izena, instalazioaren izena eta kokapena.
  b) Materialaren kudeaketa eta aurreikusitako erabilera: paletak berrerabiltzea, produktuak fabrikatzea (produktu mota zehaztuta), erregai gisa erabiltzea, azken tratamendua eta abar.
  c) Mankomunitateak entregatuko dituen eta helmuga bakoitzera bidaliko diren materialen gutxi gorabeherako proportzioaren aurreikuspena.

BERDINKETAK DESEGITEKO IRIZPIDEAK

Bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, honela desegingo da:

.- Aintzat hartuko da zein enpresak duen bere plantillan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterkerian dauden langileen portzentaje handiena. Portzentajeak berberak baldin badira, aintzat hartuko da enpresetako zeinek duen bere plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handiena edo gizarte-bazterkerian dauden langileen kopuru handiena.

.- Hala ere berdinketa gertatzen bada, plantillan behin-behineko kontratuen portzentaje txikiena duen enpresari emango zaio lehentasuna.

.- Hala ere berdinketa gertatzen bada, plantillan emakume enplegatuen portzentaje handiena duen enpresari emango zaio lehentasuna.

Eta hala ere berdinketa gertatzen bada, zozketa egingo da, betiere aurreko irizpideak aplikatuz ez bada berdinketa desegin.

8. INFORMAZIO OSAGARRIA

8.1. HAUTATUTAKO FORMULAREN JUSTIFIKAZIOA

Eskaintza ekonomikoetarako

P1 eta P2 puntuen artean interpolazio lineala eginez banatzen dira puntuak; P1 lizitazio-prezioaren parekoa da, eta P1=50x(1-(3xGehieneko beherakada)) egokituko litzaioke, eta P2ri eskaintza ekonomikoena. Hau da, beherakada handiena duen eskaintzari 50 puntuak esleituko litzaizkioke. Tarteko eskaintzei, berriz, bi puntuen arteko interpolazio linealaren bidez esleituko zaizkie puntuak; eskaintza bakoitzaren beherakaden balioak abzisan jarriko dira, eta eskaintza bakoitzari esleitu beharreko puntuak, berriz, ordenatuetan.

Hautatutako formularen bidez, eskaintza baxuenari kontzeptu horrengatik eman daitezkeen puntu guztiak ematen dizkio, eta lizitazio-prezioari, berriz, gehieneko puntuazioa (1-(3xGehieneko beherakada)) faktorearekin biderkatuz ateratzen diren puntuak ematen zaizkio (gehieneko beherakada ehunekotan adierazten da).

Horren eraginez, lizitatzaileren batek zerbitzua lizitazio-prezioan eskainiko balu, esfortzu bat egiten duten eta lizitaziotik beherako prezioak eskaintzen dituzten lizitatzaileen puntuazioa baino zertxobait apalagoa lortuko luke.

Gainera, proposamen ekonomikoena zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta baxuagoa izango da lizitazio-prezioaren berbera duen eskaintza batek lortzen duen puntuazioa, eta erabat aldenduko da puntuak alderantzizko proportzionaltasunaren arau baten bidez banatzeko irizpidetik. Izan ere, eskaintza ekonomiko onena zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta malda handiagoa izango du esleituko diren puntuak interpolatzen diren zuzenak. Modu horretan, prezio baxuagoa eskaintzen duenaren ahalegina saritzen da. Bestalde, formula horren beste ezaugarrietako bat da lizitatzaileek antzeko beherakadak eskainiz gero antzeko puntuazioak lortzen dituztela.

Eibarko Garbigunetik lizitatzaileak adierazitako entrega instalaziorako distantziagatik puntuak esleitzeko:

Puntuak hondakinak uzteko instalaziorako distantziaren (kilometrotan) alderantzizko proportzioaren araberako banaketaren bidez esleitzea proposatzen da; hau da, distantzia handienei puntuazio txikienak esleituko zaizkie.

Irizpide hau bildutako hondakinak adjudikatutako tratamendu zentrora garraiatzeko distantzia handia penalizatzeko ezartzen da, bi kontzeptu hauengatik:

a) urrun dauden tratamendu-zentroetarako garraioa penalizatzea, negutegi-efektuko gas-emisiorik txikiena izatea helburu izanik

b) b) Hondakinen kudeaketaren guztizko kostuari honako hauek gaineratzea: hondakinak kudeatzeko urrun dauden tratamendu-zentroetara joateagatiko kostua, langile-kostuak eta erregai-kontsumoaren gastu arrunta, eta ibilgailuen mantentze-gastuak eta amortizazio-gastuak.

Lehenengo 10 kilometroak ez dira penalizatzen, ibilbide desberdinei dagoeneko lotuta baitago Mankomunitate barruko garraioa. Horrela, distantziaren azken 30 kilometroak penalizatzen dira, modu proportzionalean.

9. LIZITAZIO-PREZIOAK KALKULATZEKO METODOA:

Kostuak kalkulatzeko, kontuan hartu da haien banaketa, honela, eta kostua osatzen duten partiden zama: Zuzeneko langileen gastua, % 57; zeharkako langileen gastua, % 13; horniduren gastua, guztira, % 17; gastu finantzarioa, % 2; ibilgetuaren amortizazioa % 2; gastu orokorrak, % 3; eta etekin industriala % 6. Hau da, zuzeneko gastuak, guztizko kostuaren % 74; zeharkakoak, % 17; eta beste gastu batzuk, % 19.

Zur "garbia" eta "zikina" edo "tratatua" kudeatzeko zerbitzuaren kostuaren kalkulua								
Kostuak kontzeptuen arabera xehatuta	Kostuetan parte hartzearen %				Kostuetan parte hartzea, eurotan (BEZa gabe)			
	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Beste gastu batzuk		Zuzenekoak	Zeharkakoak	Beste gastu batzuk	
Langileen gastuak, ZUL	0,57				37.107,00	0,00	0,00	0,00
Langileen gastuak, ZEL		0,13			0,00	8.463,00	0,00	0,00
Hornidurak	0,17				11.067,00	0,00	0,00	0,00
Gastu finantzarioa		0,02			0,00	1.302,00	0,00	0,00
Ibilgetuaren amortizazioa		0,02			14.609,46	1.302,00	0,00	0,00
Gastu orokorrak			0,03		0,00	0,00	1.953,00	0,00
Etekin industriala				0,06	0,00	0,00	0,00	3.906,00
GUZTIRA	0,74	0,17	0,03	0,06	48.174,00	11.067,00	1.953,00	3.906,00
	1,00				65.100,00			

10. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Bildutako zuraren hondakinak kudeatzeko zerbitzuaren kontratuak ahal den neurrian sustatu nahi du elementu horien birziklapena, eta horregatik eskatzen da lehen adierazitako LER kodeei buruzko agintaritza eskudunak emandako kudeatzaile-egiaztapena entregatzea, eta egiaztapen horrek indarrean egon beharko du lizitatzaile bakoitzak eskaintzen duen entrega-instalaziorako.

Era berean, ingurumenaren eta jasangarritasunaren arloko kontsiderazioak sustatzen ditu zerbitzua emateko, entrega-plantarekiko distantzia txikiena hobarituta, Mankomunitateko langileek egin beharreko garraioak ingurumen-kutsadura txikiagoa eta honako gas hauen emisio txikiagoa eragin dezan: CO, HC, NOX eta partikulak (emisio horiek txikiagoak izango dira bete beharreko distantziak zenbat eta txikiagoak izan).

Funtsezko betebeharra da aurkeztutako materialen erabilera egiaztatzea. Akreditazioa hilekoa izango da. Hori ez betetzeak zehapenak ezartzea ekar dezake, edo kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke.

1. ERANSKINA

❖ Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak bildutako tona kopuruen historikoa, honako hondakin mota eta aldi hauei dagokienez:

URTEA	HONDAKIN MOTA	BILDUTAKO TONAK	URTEAN JASOTAKO TONAK, GUZTIRA
2019	Zur "garbia"	420,24	1.264,25
	Zur "zikina" edo "tratatutakoa"	844,01	
2020	Zur "garbia"	265,79	1.279,85
	Zur "zikina" edo "tratatutakoa"	1.014,06	
2021	Zur "garbia"	382,70	1.619,54
	Zur "zikina" edo "tratatutakoa"	1.236,84	

❖ Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak entrega instalaziora egindako bidaien historikoa, honako hondakin mota eta aldi hauei dagokienez:

2019-2020-2021 URTEETAN EGURRAREKIN EGINDAKO BIDAIA KOPURUA (GARBIA ETA ZIKINA)													
2019	**urtarrila**	**otsaila**	**martxoa**	**apirila**	**maiatza**	**ekaina**	**uztaila**	**abuztua**	**iraila**	**urria**	**azaroa**	**abendua**	**guztira**
Tailerrak (egur garbia, batez ere)	**9**	**9**	**9**	**8**	**9**	**8**	**6**	**8**	**9**	**9**	**9**	**8**	**101**
41 eta 42 ibilbideetako zura, bide publikoko altzarien bilketa (egur zikina)	5	5	5	4	5	4	7	0	3	6	4	1	**49**
Garbiguneak (zur zikina)													
Eibar	9	6	9	7	8	6	5	5	7	8	7	7	84
Elgoibar	4	3	4	3	4	5	5	4	4	4	5	4	49
Ermua	4	4	4	5	3	5	5	5	6	6	5	5	57
Mutriku	3	4	3	5	0	0	0	0	3	2	2	3	25
Garbiguneak guztira	20	17	20	20	15	16	15	14	20	20	19	19	215
Zur zikina, guztira	**25**	**22**	**25**	**24**	**20**	**20**	**22**	**14**	**23**	**26**	**23**	**20**	**264**
Bidaiak guztira	**34**	**31**	**34**	**32**	**29**	**28**	**28**	**22**	**32**	**35**	**32**	**28**	**365**

2020	**urtarrila**	**otsaila**	**martxoa**	**apirila**	**maiatza**	**ekaina**	**uztaila**	**abuztua**	**iraila**	**urria**	**azaroa**	**abendua**	**guztira**
Tailerrak (egur garbia, batez ere)	**9**	**9**	**8**	**7**	**11**	**8**	**10**	**8**	**9**	**10**	**8**	**9**	**106**
41 eta 42 ibilbideetako zura, bide publikoko altzarien bilketa (egur zikina)	3	5	2	0	6	9	6	6	15	10	10	8	**80**
Garbiguneak (zur zikina)													
Eibar	9	8	6	7	10	10	11	9	9	12	9	8	108
Elgoibar	4	5	2	2	4	5	6	4	6	4	8	6	56
Ermua	5	5	3	0	5	4	4	3	5	5	4	4	47
Mutriku	3	3	3	1	2	4	3	3	3	4	4	3	36
Garbiguneak guztira	21	21	14	10	21	23	24	19	23	25	25	21	247
Zur zikina, guztira	**24**	**26**	**16**	**10**	**27**	**32**	**30**	**25**	**38**	**35**	**35**	**29**	**327**
Bidaiak guztira	**33**	**35**	**24**	**17**	**38**	**40**	**40**	**33**	**47**	**45**	**43**	**38**	**433**

2021	**enero**	**febrero**	**marzo**	**abril**	**mayo**	**junio**	**julio**	**agosto**	**septiembre**	**octubre**	**noviembre**	**diciembre**	**total**
Tailerrak (egur garbia, batez ere)	**9**	**8**	**8**	**10**	**8**	**8**	**12**	**8**	**13**	**10**	**8**	**9**	**111**
41 eta 42 ibilbideetako zura, bide publikoko altzarien bilketa (egur zikina)	7	8	9	9	8	11	10	8	9	10	10	9	**108**
Garbiguneak (zur zikina)													
Eibar	9	8	11	6	10	11	11	7	8	7	11	8	107
Elgoibar	5	5	6	5	8	7	6	5	6	5	9	6	73
Ermua	4	5	5	4	5	6	4	2	3	5	4	4	51
Mutriku	2	3	4	2	3	3	3	3	4	3	4	3	37
Garbiguneak guztira	20	21	26	17	26	27	24	17	21	20	28	21	268
Zur zikina, guztira	**27**	**29**	**35**	**26**	**34**	**38**	**34**	**25**	**30**	**30**	**38**	**30**	**376**
Bidaiak guztira	**36**	**37**	**43**	**36**	**42**	**46**	**46**	**33**	**43**	**40**	**46**	**39**	**487**